

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa

Gazte Saria

XEDEA

Sari honen helburua Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien alorretan lanean ari diren gazteen lanak (proiektuak, sorkuntza lanak, ikus-entzunezkoak...) saritzea.

PARTE-HARTZAILEAK

Gazte banakoei edota taldeei zuzenduta dago. Hautagaiek, banakoa nahiz taldea, 35 urte baino gutxiago izan beharko dute.

SARIA

6.000 euroko sari bakarra emango da.

Saritutako lana indarraldian dagoen urtean edo/eta hurrengoan gauzatu beharko da.

Saria jasotzeak aurkeztutako lana gauzatzeko betebeharra dakar berekin. Halaber, lana originala izan beharko da.

Saritutako pertsona edo taldea, emate ekitaldian parte-hartzea ezinbesteko baldintza izango da saria jasotzeko.

Saritutako lanaren ekarpen nagusiak bilduko duen artikulua bat idatzi beharko da *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, RIEVen (Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria) argitaratzeari begira.

Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritziz gero.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- Lanaren memoria: izenburua, laburpena, helburu zehatzen deskribapena, helburu orokorrak (hiru orrialde gehienez).
- Aurkezlearen Curriculum Vitae laburtua (inprimakia deskargatu). Taldearen kasuan, kide guztien CV. Taldean aurkeztu ezker arduradun bat izendatu beharko da.

Curriculum Vitae laburtua oinarri hauetan dagoen ereduari egokitu beharko zaio derrigorrez. Dokumentazioa euskarri informatikoan ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus helbidera bidali behar da.

EPEAK

Hautagaiak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 31ean amaitzen da. Epaimahaiaren erabakia 2019ko maiatzean ezagutaraziko da eta sari ematea 2019ko udan gauzatuko da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Irizpide hauek kontuan izango ditu epaimahaiak saria emateko orduan:

- Edukia sariarekin lerrokatuta egotea
- Izaera berritzailea
- Etorkizuneko proiektzioa
- Gaurkotasuna
- Euskararen erabilera
- Aurkeztutako lanak –ahal den neurrian– genero ikuspuntua eta hizkuntzaren erabilera ez sexista kontuan izatea

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak alorreko adituek osatuko dute.

USTIAPEN ESKUBIDEAK

Saritutako lanaren ustiapen eskubideak Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak izango dituzte. Horrek ez du esan nahi, sarituak espresuki eskatuta, bere erabilerarik ezingo duenik egin.

INFORMAZIO GEHIAGO

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.

20007 Donostia.

Tel.: 943-310855

E-posta: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

Web orria: www.eusko-ikaskuntza.eus